

memoria

06 / 07



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI





# Aurkibidea

1.	Eraikitzen, hazten, aurrera egiten	3
	Barne-mailan indartzea	3
	Gizarte-eraldaketa eta eragin politikoa	4
	GGKEei laguntzea	4
2.	Nortzuk gara?	5
	Misioa	5
	Barne antolaketa	6
3.	Gure ekimenak	7
	Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea	7
	Generoa	9
	Eragin Politikoa	11
	Gizarte-mobilizazioa eta Kanpainak. Komunikazioa	13
	Idazkaritza Teknikoak: Euskadi, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa	15
4.	Koordinakundeko kideak	19
	Gobernu Batzordea	19
	Lan-taldeak	19
	Erakundeetan partaidetza	20
	Talde Teknikoa	21
	Kideak diren GGKEak	21
	Lankideak	21
5.	Kontu argiak	22

Laguntzaile:



ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAJETAKO SAILA  
Gizarte Gaietako Saiburuordetza  
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y  
ASUNTOS SOCIALES  
Viceconsejería de Asuntos Sociales  
Dirección de Cooperación al Desarrollo



EUSKADIKO GGKE en  
KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

### Araba

Simone de Beauvoir Elkartetxea  
San Ignacio de Loyola 8-3. 1 Bulegoa  
01001 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 280 745 • Faxa: 945 280 745  
araba@ongdeuskadi.org

### Bizkaia

Plaza Circular 3-4. B  
48001 Bilbao  
Tel.: 944 150 300 • Faxa: 944 150 300  
bizkaia@ongdeuskadi.org

### Gipuzkoa

Pasajes San Pedro Etorbidea 13 atzealde  
20017 Donostia  
Tel.: 943 463 526 • Faxa: 943 463 526  
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

[coordinadora@ongdeuskadi.org](mailto:coordinadora@ongdeuskadi.org)

[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)

## 1. Eraikitzen, hazten, aurrera egiten

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak 2005ean egin zuen plan estrategikoa eta, ondorengo bi urteetan, martxan jarritako planen eta dagozkien plangintzen ebaluazioak egiten aritu gara, besteak beste.

Plan estrategikoa ezartzeari esker, barne-mailan, Koordinakundearen egitura berria finkatzea lortu da. Hala, lurraldez gaindiko hiru lan-talde sortu dira (Eragin Politikoari buruzkoa, Mobilizazio eta Kanpainei buruzkoa eta Generoari buruzkoa).

Halaber, hiru lurraldeei buruzko ebaluazio sakonagoak eginez, ikuspegi zabal eta globalagoa lortu dugu, kointzidentziak eta bateragarritasunak daudela ikusi dugu eta, horri guztiari esker, barne-mailako koherentzia eta kohesioa bultzatu dugu.

Orain arteko jardunaren bidez, plangintzan zehaztutako tresnak geureganatu ditugu, erakundearen funtzionamendua egonkortu dugu eta ebaluazio-kultura barneratu dugu. Horrek guztiak abian jarritako ekintzak hobetzen laguntzen digu.

### Barne-mailan indartzea

GGKEekin lan garrantzitsua egin dugu erakunde horien errealitatea, inguruabarrak eta aukerak ezagutzeko, eta, horri esker, batetik, Koordinakundearen parte hartzeko eta partaide izateko moduei buruz hausnartu dugu eta, bestetik, erakunde horiek Koordinakundearekin duten konpromiso instituzionala gehiago azpimarratu ahal izan dugu. Gure ustez, aurrerapausoak egin ditugu, batez ere, Jokabide Kodean oinarrituta, gure egiteko modua etengabe berrikusteko erakunde guztiek hartutako konpromisoari dagokionez. Hala ere, elkarrekin harreman gehiago izaten, barne-mailan indartzen eta koordinazioa hobetzen jarraitu behar dugu.

Hala, barne-mailan aurrerapauso hauek egin ditugu, besteak beste: Gobernu Batzordean erantzukizunak esleitzea, kontratatutako langileak dagozkien egiturara egokitzea, langile horien lan-hitzarmenak berrikus-tea eta kontabilitate deszentralizatu baina bateratua martxan jartzea.

Horrez gain, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak GGKEetako lan-baldintzen diagnostikoan eta gaiari buruzko jardunaldi eta eztabaidetan aktiboki parte hartu du, erakunde publikoekin eta adituekin batera.

## Gizarte-eraldaketa eta eragin politikoa

Eragin politikoaren arloan, EAEko Lankidetzaren Legearen arloan egindako lana azpimarratu behar da. Hala, lege-testuari ekarpenak egin dizkiogu eta izapideetan parte hartu dugu, Legebiltzarreko alderdi politikoe-kin bilerak eginez eta, beti ere, ahalik eta adostasun handiena bilatuz. 2002an hasi eta 2007an amaitu zen lan hori, Eusko Legebiltzarrak aipatutako legea onartzean. Koordinakundeak mahai gainean jarritako gai batzuek izan dute oihartzuna lege horretan; tamalez, beste batzuek ez hainbeste. Orain, Lankidetzaren Legearen aurreikusitako prozesuak lantzea da gure erronka (Lankidetzarako Euskal Agentzia, Erakunde Arteko Batzordea eta Lankidetzaren Kontseilu berria, besteak beste).

Halaber, hauteskundeak baliatuz, hauteskunde-programen segimendua egin dugu alderdi politikoekin batera, baita parte hartzen dugun lankidetzaren kontseiluek landutako lankidetzaren politikaren segimendua ere.

Arlo publikoan, lankidetzaren munduari eragin dioten eta GGKEen irudia ilundu duten "eskandaluei" emandako erantzuna azpimarratu behar dugu. Dena den, egoera horrek aukera eman digu, batetik, gure gida-lerroak eta lan egiteko moduak ezagutarazteko —Koordinakundea osatzen duten erakunde guztiek sinatutako Portaera Kodean jasota daude— eta, bestetik, gure lanean gardentasun, demokrazia eta ekitate handiagoa lortzeko konpromisoari buruz hausnartzeko.

Parte hartu dugun kanpainenetan, koordinazio handiagoa eta hobeagoa lortu dugu mota guztietako gizarte-mugimenduekin, eta, horri esker, gure ekintzek eragin handiagoa izatea lortu dugu.

## GGKEei laguntzea

GGKEei zerbitzuak emateko ahalegina egin dugu, unean uneko prestakuntzen bidez, informazioa etengabe bidaliz edo jarduerak, deialdiak, lan-eskaintzak... jasotzen dituen buletinaren bidez.

Horrez gain, Koordinakundeko GGKEei laguntzeko prozesua landu dugu, beren erakundeetan generoaren ikuspegia barnera dezaten.

Bestalde, web gunea aztertu eta berritu dugu, eta Erabilerraztasun Legearen arabera produktu praktikoa eta erabilgarriagoa lortu dugu, baita estranet zerbitzua ere.

GGKEen parte-hartzea aberatsa eta askotarikoa izan da; erakunde horien ekarpenak ezinbestekoak dira programaturako ekintzak gauzatzeko eta ebaluazioak eta plangintzak egiteko.

Azkenik, tarte hau baliatu nahi dut gurekin parte hartu duten eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearen funtzionamendua hobetzen lagundu duten GGKE eta pertsona guztiak gogoratzeko. Eskerrik asko guztiei.

**Puri Pérez Rojo**

Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Lehendakaria

## 2. Nortzuk gara?

GGKEen Euskadiko Koordinakundea 1988an sortu zen kide diren GGKEen jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko, eta horrek berekin dakar elkarren artean, hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea.

Hasieran 11 kide fundatzailez osatu bazen ere, 2007aren amaieran, 76 GGKE ditu eta 100 egoitza baino gehiago Euskadiko lurralde historikoetan.

Urte hauetako esperientziaren ondorioz, GGKEen Koordinakundearen lehentasuneko helburu batzuk adostu ditugu guztion artean:

- Kide diren GGKEen arteko koordinazioa hobestea, garapenerako nazioarteko lankidetzaren areagotzeko, erakundearen arteko ekintza bateratuak gauzatzeko.
- Sustatzen ari garen lankidetzaren ereduaren hausnarketarako espazio erkidea sortzea, Iparralde-Hegoaldean dauden harreman desberdinak aldatzeko.
- Euskal gizartea Hegoaldeko herrialdeen errealitatearekiko sentsibilizatu, kontzientziatu eta prestatu.
- Tolerantzia eta elkartasuna bultzatu herri eta kulturen artean.
- Jendaurrean azaldu GGKEek eginiko lana.

### Misioa

Koordinakundeak garapen lanetan diharduten zenbait GKE biltzen ditu, GKE hauek Jokabide Kode bat dute eta giza garapen iraunkorraren eta genero berdintasunaren alde lan egiten dute.

Hona hemen Koordinakundearen lan arlo garrantzitsuenak:

- Erakunde publiko eta pribatuak hala nola Koordinakundeari elkartutako organizazioek kalitatezko garapena bultzatzea ezartzen lan egitea.
- Koordinakundeko kide diren erakundearen prozesuak bultzatzea beren ahalmen politiko eta teknikoak indartuz.
- Eraldaketa soziala sustatzea elkartasunaren kultura bultzatuz hiritarren artean, desberdintasunak eta pobrezia areagotzen dituzten egiturak aldatuz eta gure garapen ereduari buruzko eztabaida sustatuz.

Hori guztia aurrera eramanez, Koordinakundeak topaguneak, eztabaida guneak eta hausnarketa guneak eskaintzen ditu erakunde kideek irizpide komun batzuk finkatu dituzten, gainera, eragin politiko eta soziala garatzen du, aliantzak bideratzen ditu beste mugimendu sozial batzuekin eta presentzia publiko handiagoa aldarrikatzen du. Era berean, erakundearen ahalmena indartzen eta erakundearen arteko aliantzak errazten ditu, erakundearen baliabideak jendeari helaraziz eta alderantziz.

## Barne antolaketa

GGKEen Euskadiko Koordinakundearen organo nagusia Batzorde Orokorra da. Urtean behin batzen da urteko oinarrizko irizpide eta jarduera ildoak zehazteko. Bestalde, Batzorde Orokorrean hautatzen dira instantzietako ordezkari izango diren karguak.

Batzorde Orokorra urtean behin (gutxienez) batzen denez, Gobernu Batzordea da Koordinakundearen organo exekutiboa. Hilean behin egiten diren Lurralde Batzordeetan hartutako erabakiek aholkatzen dute Gobernu Batzordea eta batzordeetako erabakiak betearaztea du helburu.


Gainera, lana eragingarriagoa izan dadin, lurralde bakoitzean Lan-taldeekin lan egiten da. Lan-talde hauek talde txikiagoak dira eta GGKE guztientzat irabazasmorik gabe lan egiten duten hainbat GGKEetako kideez osaturik dago.

Hauek dira hiru lurralde historikoetan ditugun lan-talde operatiboak:

- Eragin Politikoa.
- Genero Taldea.
- Giza Mobilizazio eta Kanpaina Taldea.

Era berean, Jokabide Kodeari jarraipena emateko taldea ere badago.

Jendearentzako zerbitzu bat ere badu, partikular, erakunde publiko zein pribatu, hedabide, ikastetxe eta abarren eskabideei erantzuteko Idazkaritza Teknikoen bitartez, horrez gain, GGKEaren eta Koordinakundearen ekimen eta informazioak ere plazaratzen ditu.





## 3. Gure ekimenak


### Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea

Batzordeak plan estrategikoaren jarraipenari laguntza eskaini dio, batez ere erizpideak finkatzeko orduan: parte hartzeak, onartua izatekoak, kanporatzekoak, erosketa publiko eta etikoei buruzkoak...

Era berean, Koordinakundearen Barne-Arautegia berraztertzeari ekin zion, GGKEen parte hartze aktiboa izanik. 2006ko azaroan eginiko ohiz kanpoko Batzarrean aurkeztua eta onartua izan zen.

Aurretik egindako hausnarketak kontutan izanik, enpresekiko eta hornitzaileekiko GGKEen harremanei buruzko dokumentu berezi bat egitea beharrezko eta komenigarritzat jo zuen Batzordeak. Burutu ondoren, 2007ko urteko Batzarrean onartua izan zen.

Koordinakundeko erakundeen inplikazioa aztertzeke asmatan, azken aldiari parte hartzen ez ziren GGKE batzuekin bilerak egin ziren. Erakundeen egoera, aukerak eta arazoak aztertu ondoren, Koordinakundean partaide izateko modu berrien proposamena luzatu zen. Segimendu eta Gobernu Batzordeak berraztertu eta gero, 2007ko Batzarrean aurkeztua izan zen baina GGKEek ez zuten onartu.



Bestetik, Batzordeak Portaera Kodearen autoebaluzioaren berrikuspena egin du, Koordinakundearen sartu ahal izateko ezinbestekoa dena. Honekin batera, indarrean dauden erizpideetan sakontzearen, hauekex gaurkotu eta hobetu egin dira.

Batzordeak Estatuko Koordinakundearen geu bezalako kide diren koordinakunde autonomikoezikiko esperientziak partekatu ditu, bilera eta topaketetan parte hartuz.

Honetaz gain, Koordinakundearen GGKEen sarrerak era irteerak berraztertu ziren, Gobernu Batzordeari beharrezko txostenak luzatuz.

Aldi honetan, taldearen konposaketan ere aldaketak gertatu dira: Itziar Hernández eta Lara González-ek Nieves Zabala eta Fernando Fantova-k utzitako lekua bete zuten.



## Generoa

Aldi honetan, GGKEetan eta Koordinakundean bertan, genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna indartzeko lanean jarraitu zuen Genero Taldeak. Horretarako, hainbat bilera eta topaketa burutu zuen: erakunde publikoekin (Gasteizko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Lankidetzazuzendaritza); Euskadin bisitari zebiltzan zenbait tokitako emakume-erakundeekin; eta Estatuko Koordinakundeko genero-taldearekin eta Koordinakundeko Gobernu Batzordearekin.

Era berean, zenbait jardunaldi, ikastaro, topaketatan entzule edo txostengile gisara parte hartu zuen, besteak beste, Aljeriako Tindouf-eko kanpamenduetako Emakume Sahararren Batasun Nazionalaren V. Topaketan, 2007ko ekainean Madrilan egindako WIDE Biltzarrean edo azaroak 25 gogoratzen duen Plataforma Feministan.

Genero Taldearen ohiko lan-agenda osatzen duten jarduera horietaz gain, zenbait hilabete iraun zuen hausnarketa-prozesua burutu zen 2006an helburu honekin: aurkitzea genero-ikuspegia erakundeetan txertatzen GGKEei laguntzeko modua bilatzen, eta gainditzea ikuspegi hori lankidetzaz-proiektu eta programetan soilik landu behar den zerbait dela dioen ikuspuntua.

Koordinakundeko GGKEei zuzenduta, *Emakumeak eta Gizonak GGKEetan. Aldaketa-prozesuak sortuz* jardunaldiak egin ziren 2006ko maiatzean, helburu hirukoitz honekin: zer den eta zer dakarren genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketak, zergatik, zertarako eta nola landu genero-ikuspegia erakundeetan eta jardunbide egokiak eta ikasi duguna, gonbidaturiko erakundeekin: HIVOS (Herbehereak), Medicusmundi elkartearen federazioa, Acsur-Las Segovias eta Maizca.



Jardunaldiak bukatu eta hainbat espaziotan ezagutzera eman ondoren, urrian *Aldaketa prozesuak sortuz* izeneko prozesuari ekin genion, hamar erakunderen parte-hartzearekin. Hona hemen prozesuan parte hartu dutenak: Alboan, Asociación Amigos/as de la RASD Araba, Euskadiko Elkarbidea, Euskadi-Cuba, Medicumundi Araba, Medicumundi Bizkaia, Mugarik Gabe, Paz y Solidaridad, Mundubat eta Nazioarteko Elkartasuna.

Parte hartzeko betekizunak (berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketarako konpromiso instituzionala sinatzea, erakundearen ordezkari izango den barneko genero-talde bat eratzea eta gutxienez bi pertsona jardutea saioetan) onartu zituzten erakundeak 15 hilabete aritu dira prozesua betetzen 2007ko abendura arte.

Epe honetan, prozesua osatutako faseak bete dituzte:

- Sentsibilizazio-fasea: honek taldea sortzea eta mailak homologatzea zituen helburu;
- Autodiagnostiko-fasea: norberaren erakundeak genero-ikuspegia zeharkako nola bihurtzen zuen aztertzea du helburu; horretarako, lau mailatan -politika, egitura, erakunde-kultura eta produktuak-erabiltzeko analisi-sailak eta tresnak zituen oinarri;
- Segimendu-fasea: autodiagnostikoa erakundearen hedatuz hasten da, GGKE bakoitzak modu bateratu eta adostuan bere aldaketa-ibilbidea sor dezan.

GGKEekin egin beharreko lana bukatutzat eman daitekeen arren, ebaluazioaren sistematizazioari amaiera emateko azken fase bat gelditzen da oraindik. Ebaluazioa prozesua gauzatu bitartean garatu da eta 2008an argitaratuko da.



## Eragin Politikoa

2006ko maiatzean Eragin Politiko Taldea sortu zenetik Koordinakundearen eremu honetan egiten den lana sendotu da, kohesioa eta jorrraturiko gaietan aurreikuspen gehiago eragiten.

Epe honetan zehar instituzio-mailei ekin diegu, esaterako, Eusko Jaurlaritzaren Programaren Dekretua edota Lankidetzaren Legea, lege proposamenari ekarpenak eginez eta, aldi berean, Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdiekin bilerak egiten. Legebiltzarrak, azkenik, Lankidetzaren Legea onartu zuen 2007ko otsailean. Halaber, Koordinakundeak parte hartzen duen Aholku Kontseiluaren araudiari ekarpenak eta proposamenak egin zaizkio eta honekin batera, Euskal Lankidetzaren Agentziari eta 2008-2011 Plan Zuzendariari.

2007ko Udalen eta Foru hauteskundearen inguruan, alderdi politikoei zuzenduriko aldarrikapen-dokumentua adostu genuen eta honetaz gain haiekin bilerak izan genituen.

Orobat, Legegintzako Herri Ekimenaren jarraipena egin da. 48.000 sinadura bildu ondoren, Eusko Legebiltzarrak herri txirotutakoekin justizia eta elkartasunaren aldeko Lege Proposamena jaso zuen eta 2007ko abenduan onartua izan zen.

Bestetik, Estatuko Koordinakundearekin elkar lanean aritu gara, bileren zein topaketetan parte hartuz eta eragin politikoari dagozkion gaien jarraipena eginez.

Araba, 1996-2006ko Vitoria-Gasteizko Udalen lankidetzarako politika aztertzen duen ikerketa aurrera atera dugu. Gasteizko Lankidetzaren lan taldeko kidea izaten jarraitzen dugu. Euskadi-Cuba elkarteak Udalen partetik jasotako betoa salatzearen asmatan egindako ekimenak –Kontseiluan nahiz publikoki– aipatzekoak dira honetan. Era berean, Gasteizko Udaleko Ekintza Humanitarioko deialdiaren oinarriari ekarpenak egin dira eta baita Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko diru-laguntzen deialdiaren oinarriari ere.



Gipuzkoan, Diputazioarekin sinaturiko konbenioan adostu ziren ekimenei jarraipena eman diegu. Gainera, Donostiako Udaleko Lankidetzak Kontseilua sortzeko presioa eta eragin politikoa egin da. Ahazteke, Kontseilu honen arautegiari eginiko ekarpenak. 2005-2007 bitartean Gipuzkoako lankidetzak politika publikoak aztertzen dituen ikerketa abian jarri zen 2007an.

Bizkaiari dagokionez, Bilboko Udaleko Lankidetzak Plan Zuzendariaren idazketan parte hartu dugu eta Udaleko Garapenerako Lankidetzako diru-laguntzei buruzko ordenantza landu duen taldean. Bilboko Lankidetzak Kontseiluaren lan agenda presentzia izan eta haren jarraipena egin da. Bestetik, Barakaldoko Udalaren diru-laguntzen deialdirako ekarpenak aurkeztu ditugu eta Giza Mobilizazio Taldearekin batera, Ko-Garapeneraren Foroan parte hartu dugu, etorkinen bozkatzeko eskubidea aldarrikatuko duen plataforma bat sortzeko ekimenaren jarraipena eginez.

2007an zeuden taldeak –Euskadikoa, Gipuzkoakoa eta Arabakoa- jarraitzeaz gain, Bizkaiaren beste bat eratu da, eginiko lana indartuz eta hobetuz.

Zenbaitetan, arautegien garapen instituzionalak gure denbora eta lana bete du. Hau dela eta, etorkizunari begira, eragin politikoko proposamenezko ekintzak egitea eta Koordinakundearen ekimenarekin batera garatzea helburu dugu. Koordinakundeko posizionamenduak biltzen dituen dokumentu markoarekin hasiera eman diogu xede honi.



## Gizarte-mobilizazioa eta Kanpainak. Komunikazioa

Gure inguruko gizartearen eraldaketa sustatzeko asmotan, herritarren artean elkartasunaren kultura bultzatu eta ezberdintasunak eta pobrezia sortzen duten egituren aldaketa faboratuz, erakunde, antolakunde eta mugimenduekin dugun sare-lanaren aldeko apostua egin du taldeak.

Beste agenteekiko harremana sustatu eta sendotu dugu, gai berriak landuz eta estrategiak hedatuz: Zero Pobrezia Plataformak (egun bost daude Gipuzkoan: Arrasate, Eibar, Irun, Donostia eta Lasarte-Orian), herri txirotutakoekin justizia eta elkartasunaren aldeko Legegintzako Herri Ekimena, Palestinaren aldeko Mewando Sarea, SOS Arrazakeria, REAS-Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea, EAPN-Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin, talde eta mugimendu internazionalistak, sindikatuak, Euskadiko Gazte Kontseilua, Ekologistak Martxan...

Zenbaitetan, elkarrekin ekimenak sortuz edo erakunde batzuek sustatutako ekintzak bultzatuz: Iraken okupazioaren aurkako ekintzak, Palestinako egoera salatzeko ekimenak, immigrazioaren aldeko ekintzak, EPA-Elkartze Ekonomikorako Hitzarmenaren aurkako kanpaina...

Denboraldi honetan, Zero Pobrezia kanpainari jarraipena eman diogu, komunikabideetan oihartzuna izan duten giza-mobilizazio eta sentzibilizazio-ekintza ugariekin. Bizkaia eta Araban egindako jarduez gain, Gipuzkoan hilean gai bat garatu dugu aldizkako ekintzen bitartez. Generoaren zeharkakotasuna kontuan hartuz, material propioa prestatu eta hedatu dugu komunikazio ekintzen eta mobilizazio sozialeko jardueren bitartez.

Era askotako gaietako buruzko hitzaldiak, topaketak, bideo-forumak eta prestakuntza ikastaroak egin dira: Zero Pobrezia-Garapenerako Milurtekoaren Helburuak, globalizazioa, sentsibilizazioa sustatzeko sormen lana, marketing soziala, komunikazioa...

Eragin politikoaren alorrean ere laguntza eskaini dugu. Lankidetzaren Legea, Legegintzako Herri Ekimena edota Euskadi-Cuba antolakundeari egindako betoaren kasuan, Eragin Politiko Taldeko lana bultzatzeko hainbat komunikazio ekintza egin dira: iritzi artikulua, prentsaurrekoak, alderdi politikoekiko mahai ingurua, prentsa oharrak... gainera, erantzuna eman diegu komunikabideek egindako eskariei.



Komunikazioaren alorrean hainbat ekintza gauzatu dira, adibidez, komunikabideetan maiz agertzea, ERDUrekin batera antolaturiko komunizaio eskola, lankidetzeta eta elkartasuna sustatzen duten komunikabideak eta kazetariak identifikatu ditugu, GGKEei zuzenduriko komunikazio eskuliburua eta 2006 urtean Araban hasitako kazetariekin egiten genituen topaketa-gosariak.

Urtean zehar hainbat artikulua, prentsa ohar, informazio eta abar argitaratu dira. Gainera, elkarrizketak eta erreportajeak (prentsa idatzian, telebistan, irratan) egin dira komunikabideetan daukagun presentzia mantentzeko. Arabako Ola 19 irrati asoziatiboan hileko programa egiten jarraitzen dugu, baita Onda vasca irrati-asteroko konexioak ere.

2007an, Kazetaritza Solidarioa lehiaketaren lehen edizioa abian jarri genuen Garapenerako Lankidetzeta Bulegoarekin eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearekin batera. Lehiaketa honek komunikabide ugari laguntza dauka: Radio Vitoria, Cadena Ser, Punto Radio, Álava 7 eta El Correo. Gainera, lehiaketa Arabako erakundeek finantzatzen dute.

Webgunearen arduradunaren bitartez, eta komunikazio arloaren laguntzaz, egungo orriaren mantenua egin da. Era berean, 2007an webgunearen plangintzan eta berrikuntzan aritu gara, Erabilerraztasunari buruzko Lege berrira egokitzeko.

*Mundu zabala, errealitate anitz* sentsibilizazio jardunaldiaren antolaketari jarraipena eman diogu, Donostian irailean. Bostgarren edizioak sendotu eta indartu du ekimena.

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako taldeak duela bi urte sortu ziren eta orduz geroztik, hiru lurraldeetako partaidetza zabala, etengabea eta aktiboa sendotzea eta sustatzea lortu da.





# Idazkaritza Teknikoak

## Euskadi

Euskadiko Idazkaritza Teknikoko Zuzendaritzak segimendua egin die erakunde publikoekin sinatutako hitzarmenei. Hala, idazkaritza horrek kudeatu du Eusko Jaurlaritzako Lankidetzako Zuzendaritzarekin sinatutako biurteko hitzarmena. Horrez gain, jarraipena egiten die lurralde bakoitzean erakundeekin sinatzen diren hitzarmenei.

2006an, lehenengo aldiz, urteko hitzarmenak lortu ziren hiru Foru-Aldundiekin, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Udalekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Urte hauetan, Koordinakundearen finantziarioa dibertsifikatzea eta, horren bidez, idazkaritza teknikoak indartu eta finkatzea lortu du.

Lurralde bakoitzeko plangintza orokorreko eta urteko plangintzako jarduerak koordinatzeaz arduratzen den plan estrategikoaren taldearekin ere lan egin du Euskadiko Idazkaritza Teknikoko Zuzendaritzak. Halaber, Gobernu Batzordeko bileretan eta Lurraldeko Batzarretan parte hartu ohi du.

Plan estrategikoa martxan jartzearen ondorioz, azken bi urte hauetan, Koordinakundearen antolaketa-egitura aldatu egin da, eta talde eta antolatzeko era berrietara egokitu behar izan dugu.

Euskadiko Idazkaritza Teknikoak modu aktiboan parte hartu du Koordinakundearen Eragin Politikoko Taldea abian jartzeko. Aldaketa horien harira, lanpostu berriak sortu dira (adibidez, eragin-taldeko arduraduna), eta beste arlo batzuetan aldaketak egin dira (Bizkaiko idazkaritza teknikoa eta Gipuzkoako eta Arabako sareak).

Halaber, Euskadiko Idazkaritza Teknikoko Zuzendaritzak estatuko GGKEen Koordinakundearekin harremanetan jartzea bultzatu du. Badira zenbait urte konpromiso hori hartu genuenetik, eta egunez egun finkatzen ari gara bide hori. Hala, Madrilen bi hilean behin egiten diren bileretara joaten gara, Vigon egindako erkidegoetako koordinakundeei buruzko topaketan parte hartu dugu eta XX. urteurrenaren ospakizunera ere joan gara.

2006an Euskadiko GGKEetako langileen lan-baldintzak aztertzeako proiektuan ere parte hartu dugu. 2007an amaitu zen proiektua, Gasteizen eztabaidarako eta azterketarako egindako jardunaldien bidez.

Halaber, harreman zuzena izan dugu administrazioekin eta lankidetzarekin lotutako bestelako erakundeekin (Euskal Fonda, CAN, Fiare...).



## Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Koordinakundeko Idazkaritza Teknikoek, barne-mailan, GGKEak indartzeko eta laguntzeko lana egiten dute eta, kanpora begira, jendearentzako arreta-zerbitzua eskaintzen dute (kudeaketa ekonomikoa eta zerbitzuen kudeaketa, lan-poltsa, bisitak, dohaintzen koordinazioa, argitalpenak, materialak, informazioak...).

Azken bi urte hauetan, Koordinakundeko kide diren GGKEek modu aktiboan parte hartu dutela ikusi dugu: Araban, 22 erakunde hartu dute parte, batez beste, lan-taldeetan, asanbladetan, gaikako taldeetan..., Bizkaian 38k eta Gipuzkoan 28k.

Halaber, gai hori sakontzeko, Araban diagnostiko bat egin zuten 2006an (GGKEen errealitatearen azterketa, Koordinakundearen gaineko ezagutza, eskariak, itxaropenak...), erakunde horien beharren eta aukeren arabera, parte hartzeko modu praktikoagoak eta errealagoak zehazteko asmoz. Zentzu honetan, Bizkaian 2007an zehar, Koordinakundean parte hartzeko erakundeen mugaketak eta arrazoiak aztertzen zituen ikerketari ekin genion.

Barne-koordinazioari dagokionez, erakundeen ordezkariak Lurraldeko Batzarrak eta bilerak –aldizka edo hilabetean behin– egiten dituzte Araban eta Gipuzkoan (Bizkaian bi hilabetean behin egiten dituzte). Horrez gain, etengabeko informazio-zerbitzua jasotzen dute GGKEek (deialdiak, diru-laguntzak, lan-eskaintzak, boluntario-lana, berriak...).


Kanpora begira, Idazkaritzek bilerak koordinatzen dituzte erakundeekin eta Hegoaldeko ordezkariekin. Besteak beste, pertsona hauek hartu dute parte bi urte hauetan:

- Giovanna Lemus, emakumeen aurkako biolentziaren aurkako Guatemalako mugimenduaren ordezkaria.
- Sergia Galbán, Dominikar Errepublikako Mujer y Salud taldeko ordezkaria.
- Pablo Ragalsky, Boliviako hainbat talde indigenen ordezkaria.
- Natalia Escobar, Nazioarteko Negozio eta Garapeneko gerenteordea-Antiokiako Lankidetzarako Institutua (Kolonbia).
- Neila Marquina, Boliviako Somos Sur elkartekoa.


Koordinakundeko Idazkaritzek prestakuntzarako hainbat ekintza jarri dituzte martxan, gai hauei buruz: boluntarioen estatutua, gatazken etika, Herri Ekimen Legegilea, boluntario gisa nola parte hartu...




Horrez gain, partikularrek, elkarrekin, taldeek, ikastetxeek... egindako eskaerei erantzuten diete. Hala, Araban, batez beste, 600 kontsulta erantzuten dituzte urteko, Bizkaian 500 inguru eta Gipuzkoan 800 baino gehiago. Kontsulta gehienak partikularrek egiten dituzte (% 60 inguru), eta, horretarako, telefonoa erabiltzen dute gehienbat eta, ondoren, posta elektronikoa eta kontsultak egiteko lekura bertaratzea.



Banakako kontsultak egiten dituztenek, batez ere, erakundeetan boluntario-ekintzak egiteko aukerei buruz galdetzen dute (egoitzan bertan zein lankide boluntario gisa). Horren ondoren, Koordinakundeko lan-poltsari buruzko informazioa eskatzen dute gehien.



Bestalde, erakundeek (GKEak, bestelako taldeak, erakunde publikoak, ikastetxeak, komunikabideak...) gai askori buruzko kontsultak egiten dituzte Koordinakundearekin harremanetan jartzean: laguntza eta materialak eskatzea, jarduerak zabaltzea, GGKEei buruzko informazio orokorra, lankidetzak, Koordinakundeari buruzko informazioa, dohaintzak...



Halaber, Araban eta Gipuzkoan berriazko lanak egin dituzte –hiriburuetan bakarrik zentralizatu gabe– GGKEen presentzia bultzatzeko helburuarekin (lankidetzaren arloan lan egiten duten pertsona giltzarriekin harremanetan jartzea, jarduerari buruzko informazioa eta koordinazioa, Hegoaldeko herrialdeen errealitateari buruzko sentsibilizazioa lantzea...). Besteak beste, ekintza hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Azoka solidario, jaialdi eta jardueretan parte hartzea Amurrion, Berantevillan, Oionen, Alegrian...
- Zero Pobrezia plataformen ekintzak Arrasaten, Eibarren, Irunen, Donostian eta Lasarte-Orian eta jarduera zehatzak Zarautzen, Getarian, Ibarra, Zumarraga-Urretxun...

## 4. Koordinakundeko kideak\*

### Gobernu Batzordea

Lehendakaritza: Puri Pérez Rojo [MUGARIK GABE](#)

Lehendakariordetza: Ana María Arriola [NAZIOARTEKO ELKARTASUNA](#)

Idazkaritza: Esther Calvo [PROCLADE EUSKADI](#)

Diruzaintza: María del Mar Magallón [ALBOAN FUNDAZIOA](#)

Arabako Ordezkarria: Arantza Chacón [ASOCIACIÓN AMIGOS/AS DE LA RASD](#)

Bizkaiko Ordezkaritza: Jaime Bernar [ZABALKETA](#)

Gipuzkoako Ordezkaritza: Mertxe Digón [INTERED](#)

Batzordekidea: Ruth Quintana [EUSKADIKO ELKARBIDEA](#)

Batzordekidea: Ana Mokoroa [ELAN EUSKADI](#)

Estatuko Garapenerako GKEen Koordinakundea eta Euskadiko GKEen Koordinakundearen arteko Harremanen Arduraduna: Efrén Feliú [ALBOAN FUNDAZIOA](#).

### Lan-taldeak

#### Genero Taldea

Isabel Uría [ASOCIACIÓN DE AMIGOS/AS DE LA RASD](#) • Amaia Iguaran [AYUDA MÁS](#) • Mónica Fernández [EUSKADIKO ELKARBIDEA](#) • Aitziber Arana [ECONOMISTAS SIN FRONTERAS](#) • Covadonga Apaolaza [FUNDESO](#) • María Asun Ibarra [INTERED](#) • Ana Bengoetxea [LEONEKIN](#) • Pilar Bilbao [MANOS UNIDAS](#) • Carmen Apraiz [MEDICUSMUNDI BIZKAIA](#) • María Viadero [MUGARIK GABE](#) • Begoña Dorronsoro [MUGARIK GABE](#) • Ana Etxarte [MUNDUBAT](#) • Arkaitz López [PAZ Y SOLIDARIDAD](#) • Sara Maza [NAZIOARTEKO ELKARTASUNA](#) • Susana Mateo [ZABALKETA](#) • Ana Gómez, Lara González, Ainhoa López, Clara Murguialday eta Ane Etxebarria, Taldean praktikak egin zituenak.

#### Eragin Politikoa

Euskadi: Txabi Anuzita [MUNDUBAT](#) • Emilio López [EDEX](#) • Nerea Basterra [INTERMÓN OXFAM](#) • Esther Calvo [PROCLADE](#) • Sara Maza [NAZIOARTEKO ELKARTASUNA](#) • Regina Zalbidea [FISC TERCER MUNDO](#) • Jesús Ochoa [ECONOMISTAS SIN FRONTERAS](#) • Cristina Gonzalo [CARITAS DIOCESANA BILBAO](#) • Koldo Muro [CARITAS GIPUZKOA](#) • Josune Igoa [INTERED](#) • Puri Pérez [MUGARIK GABE](#) • Iñaki Orube [MUGEN GAINETIK](#) • Eduardo Sánchez [EMAUS FUNDAZIOA](#) • Mercedes de Madrazo [EUSKADIKO ELKARBIDEA](#) • Amaia Iguaran [AYUDA MÁS](#) • Jaime Bernar eta Rafa M<sup>a</sup> Ferrer [ZABALKETA](#) • Nacho Eguizabal eta Noemí de la Fuente [ALBOAN FUNDAZIOA](#).

Araba: Luis Royero [AAMI](#) • Paloma Díaz [FORO RURAL MUNDIAL](#) • Itxiar Inza [MEDICUSMUNDI](#) • Teresa Burgui [MUNDUBAT](#) • Alberto Cereijo [SETEM](#) • Ainhoa Ocejá [SAVE THE CHILDREN](#) • Estíbaliz Ibáñez eta Virginia del Arco praktikak egin zituztenak.

Bizkaia: Noemí de la Fuente [ALBOAN FUNDAZIOA](#) • Emilio López [EDEX](#) • Nerea Basterra [INTERMÓN OXFAM](#) • María Arrieta [JÓVENES TERCER MUNDO](#) • Esther Calvo [PROCLADE](#) • Sara Maza [NAZIOARTEKO ELKARTASUNA](#) • Regina Zalbidea [FISC TERCER MUNDO](#) • Jesús Magnas [ECONOMISTAS SIN FRONTERAS](#) • Mónica Hernando [MUNDUBAT](#) • Jaime Bernar eta Rafa M<sup>a</sup> Ferrer [ZABALKETA](#) • Cristina Gonzalo [CARITAS DIOCESANA BILBAO](#) • Amaia Iguaran [AYUDA MÁS](#) • Carlos Cuervo [MEDICUSMUNDI](#) • Jesús González [MUGARIK GABE](#).

\* 2007ko amaieran.

Gipuzkoa: Koldo Muro [CÁRITAS GIPUZKOA](#) • Jesús Ochoa [ECONOMISTAS SIN FRONTERAS](#) • Josune Igoa [INTERED](#) • Tere López [MANOS UNIDAS](#) • Mikel Otxotorena [MUGARIK GABE](#) • Iñaki Orube [MUGEN GAINETIK](#)  
• Iñigo Odriozola [TAU](#) • Jesús García [ICLI](#) • Fernando Vaquerizo [MUNDUBAT](#) • Isabel Goenaga [ADRA](#)  
• Eduardo Sánchez [EMAÚS FUNDAZIOA](#).

### Gizarte-mobilizazioa eta Kanpainak. Komunikazioa

Araba: Daniel Galindo [ADECO](#) • Lorena Fernández [ASOCIACIÓN AMIGOS/AS DE LA RASD](#) • Laura Lorenzo [FORO RURAL MUNDIAL](#) • Yoanna Amondarain [ADSI FUNDAZIOA](#) • Yolanda Barco [HAURRALDE](#) • Fran Izquierdo [MISIONES DIOCESANAS](#) • Edurne Rey [MUGARIK GABE](#) • David Pinilla Muñoz [PAZ Y SOLIDARIDAD](#)  
• Eva Silván [SAVE THE CHILDREN](#) • Janire Sáenz de Buruaga [SERSO / TIERRA DE HOMBRES / SAVE THE CHILDREN](#) • Fátima Uribarren [SOLIVE](#) • Olga Serrano [TIERRA DE HOMBRES](#).

Komunikazioa: Conchi Quintana [FORO RURAL MUNDIAL](#) • Marian Uriarte [IZAN](#) • Teresa Burgui [MUNDUBAT](#) • Esti Gómez de Segura [MUGARIK GABE](#) • Olatz Domínguez [PROCLADE](#) • Laura Ciudad [SERSO](#)  
• Diego Merino, praktketan.

Bizkaia: Marta García Aldama [ADRA](#) • Carolina del Río [ALBOAN FUNDAZIOA](#) • Iñaki Echevarría [BULTZAPEN](#) • Estitxu Izaguirre [CÁRITAS](#) • Itziar Ereño [INTERED](#) • Sofía Marroquín [INTERMÓN OXFAM](#) • Cuqui Lorenzo [ISF](#) • Pili Pose [JUSTICIA Y PAZ](#) • Merche Aguirre [MISIONES DIOCESANAS](#) • Lorea Burges [MUNDUBAT](#) • Jorge Lago [PAZ CON DIGNIDAD](#) • Pedro Ramírez [TALDEKA LAGUNDUZ](#) • Ruth Fernández [UNESCO ETXEA](#) • Pilar Oronoz [ZABALKETA](#).

Gipuzkoa: Kiko Jiménez [ADSI FUNDAZIOA](#) • Maitane Igartua [AMS](#) • Ane García [BEHAR BIDASOA](#) • Idoia Irigaray [CÁRITAS](#) • Ana Mokoroa [ELAN EUSKADI](#) • Lourdes Guruceta [FISC](#) • Patricia Ponce [HAURRALDE](#)  
• Arantza Garbizu [MEDICUMUNDI](#) • Kote Urbieta [MUGEN GAINETIK](#) • Laura Laborra [PROCLADE](#) • Josean Etxeberria [PROSALUS](#) • Ana Hurtado [ROKPA](#) (Gipuzkoan dauden Zero Pobreziaren 5 Plataforma ez dira hemen sartzen).

### Jokabide Kodearen Jarraipen Batzordea

Itziar Hernández Zubizarreta, Lara González, Mireia Espiau, Carlos Askunze, Felipe Gómez eta Puri Pérez Rojo.

### Plan Estrategikoaren Taldea

Kideek ez dituzte GKEak ordezkatzeko, Koordinakundeko estamentuak baizik:

Lehendakaria den Puri Pérez Rojo, Alberto Cereijo Arabako ordezkari, Mertxe Digón Gipuzkoakoa, Ana Gómez Bizkaiko eta langileena, Natxo Ribechini Zuzendaritzatik eta Lara González, kanpo aholkulari.

## Erakundeetan partaidetza

### Eusko Jaurlaritzako Aholku-Batzordea

Nacho Eguizabal [ALBOAN FUNDAZIOA](#) • Mercedes de Madrazo [EUSKADIKO ELKARBIDEA](#) • Josune Igoa [INTERED](#) • Koldo Muro [CÁRITAS GIPUZKOA](#) • Puri Pérez Rojo [MUGARIK GABE](#) • Txabi Anuzita [MUNDUBAT](#).

### Bilboko Lankidetzako Udai-Batzordea

Cristina Gonzalo [CÁRITAS DIOCESANA BILBAO](#) • Carlos Cuervo [MEDICUMUNDI](#) • Jesús González [MUGARIK GABE](#) • Mónica Hernando [MUNDUBAT](#).

### Vitoria–Gasteizko Garapen Lankidetzako Batzordea

Andrés Angulo [SERSO EUSKAL HERRIA](#).

## Talde Teknikoa

Idazkaritza Teknikoaren Zuzendaritza: Natxo Ribechini  
Arabako Idazkaritza Teknikoa: Aurora Hermosilla eta Laura Imaz  
Bizkaiko Idazkaritza Teknikoa: Ana Gómez  
Gipuzkoako Idazkaritza Teknikoa: Erika Erkizia eta Silvia Carballo  
Genero Arduraduna: Silvia de Gregorio  
Eragin Politiko Arduraduna: Natalia Rodríguez  
Komunikazio eta Kanpaina Arduraduna: Idoia Aldama

## Kideak diren GGKEak

Acción Verapaz Euskadi	Intermón Oxfam
Acnur Euskal Batzordea	Intered Euskal Herria
Adeco Amistad, Desarrollo y Cooperación	Iquitanz
Adra	Iscod Euskadi
Adsis Fundazioa	Itaka Escolapios Fundazioa
Alboan Fundazioa	Izan Elkartea
Amigos del Tercer Mundo	Jóvenes del Tercer Mundo
AMS Activos por un Mundo Solidario	Justicia y Paz
Arquitectos Sin Fronteras	Kainabera
Asamblea de Cooperación por la Paz	Leonekin
Asociación Africanista Manuel Iradier	Manos Unidas
Asociación Amigo/as de la RASD Araba	Medicumundi Araba
Asociación Amigo/as de la RASD Bizkaia	Medicumundi Bizkaia
Asociación Amigo/as de la RASD Gipuzkoa	Medicumundi Gipuzkoa
Ayuda Más	Misiones Diocesanas
Bateginez	Mugarik Gabe
Behar Bidasoa	Mugen Gainetik
Bultzapen	Mundubat
Calcuta Ondoan	Munduko Medikiak
Cáritas Diocesana Bilbao	Nazioarteko Elkartasuna
Cáritas Gipuzkoa	OSALDE Asociación por el Derecho a la Salud
Compartir	Oskar Romero Solidaritza
Cruz Roja	Paz y Solidaridad
Edex	PROCLADE Euskadi
Elan Euskadi	PROSALUS
Emaus Fundazioa	PROYDE PROEGA
Euskadi-Cuba	Psicólogos Sin Fronteras País Vasco
Euskadiko Elkarbidea	ROKPA Euskadi
Fisc Euskal Herria	SED Solidaridad, Educación y Desarrollo
Foro Rural Mundial	SERSO Euskal Herria
FUNDESOS Fundación Desarrollo Sostenido	SETEM Hego Haizea
Garapena	Solidaridad con América Latina SAL
Gizakien Lurra	SOLIVE Solidaridad Vedruna
Haurralde Fundazioa	SOTERMUN
Hegoa	TAU Fundazioa
Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako	Unesco Etxea
Ingeniería Sin Fronteras	Zabalketa
Innovación Social de la Cultura FISC Fundazioa	Zubiak Eginez

## Lankideak

Gure ekimenaren garapena aurrera ateratzeko ezinbestekoa den laguntzaren bultzatzaileak eskertzea gustatuko litzazuke: lankideak eta boluntarioak diren emakumezkoak eta gizonezkoak, GGKEak, giza mugimenduak, komunikabideak, erakunde publiko zein pribatuak...

## 5. Kontu argiak

### Galdu-irabazien kontua

Zor	2006	2007
A) Gastuak	302.895,44	367.887,58
A3. Langileen gastuak	196.775,61	229.069,43
a) Lansariak eta asimilatuak	152.237,19	188.079,15
640. Lansariak	152.237,19	188.079,15
b) Gizarte zamak	44.538,42	40.990,28
642. Enpresaren Gizarte Zamak	44.538,42	40.990,28
A6. Beste ustiapen emaitzak	105.550,26	138.124,18
a) Kanpoko zerbitzuak	105.550,26	138.124,18
621. Arrendamenduak eta kanonak	11.156,46	11.632,12
622. Konponketak eta kontserbazioa	1.959,43	415,11
623. Profesional independenteen zerbitzuak	571,25	487,05
624. Dietak eta garraioak	13.940,08	14.452,34
625. Aseguru-primak	0,00	983,26
627. Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	584,65	64,50
628. Hornidurak	3.435,93	3.164,86
629. Beste zenbait zerbitzu	73.902,46	106.924,94
AI. Ustiapen etekinak	11.039,92	73.535,13
A7. Finantza gastuak eta asimilatuak	569,57	693,97
c) Hirugarren pertsonetikiko zorreatatik eta gastu asimilatuengatik	569,57	693,97
6690. Finantza gastuak	569,57	693,97
AIII. Jarduera arrunten etekinak	10.651,19	73.360,46
AIV. Ez-ohiko emaitza positiboak	2.846,93	1.885,95
AV. Zergen aurreko etekinak	13.498,12	75.246,41
AVI. Ekitaldiko emaitzak	13.498,12	75.246,41



HARTZEKO	2006	2007
B) Sarrerak	316.393,56	443.133,99
B4. Bestelako ustiapen sarrerak	313.365,79	440.728,74
a) Erantsitako sarrerak eta bestelako gestio arrunteko sarrerak	23.327,82	25.886,03
756. Erabiltzaileen kuotak	23.327,82	25.886,03
b) Diru-laguntzak	290.037,97	414.842,71
740. Ustiapenerako diru-laguntza ofizialak	290.037,97	414.842,71
BI. Ustiapen galerak	0,00	0,00
B7. Asimilatutako bestelako interes edo sarrerak	180,84	519,30
c) Bestelako interesak	180,84	519,30
7690. Finantza sarrerak	180,84	519,30
BII. Finantza emaitza negatiboak	388,73	174,67
BIII. Jarduera arrunteko galerak	0,00	0,00
B12. Ez-ohiko sarrerak	2.846,93	1.885,95
778. Ez-ohiko Sarrerak	2.846,93	1.885,95

## 2006 FINANTZA ITURRIAK

Sailak	Sarrerak	%
Berezko fondoak	27.795,59	8,74
Eusko Jurlarritza	126.431,00	39,77
ARABA Aldundia eta Udala	55.630,56	17,50
BIZKAIA Aldundia eta Udala	30.000,00	9,44
GIPUZKOA Aldundia eta Udala	78.030,31	24,55

Sailak	Gastuak	%
Materialak	17.214,54	5,66
Langileak	196.775,61	64,71
Bidaiak eta egonaldiak	13.940,08	4,58
Kontratazioak	62.743,41	20,63
Funtzionamendua	13.437,02	4,42

## 2007 FINANTZA ITURRIAK

Sailak	Sarrerak	%
Berezko fondoak	28.291,28	6,38
Eusko Jaurlaritza	189.646,65	42,80
ARABA Aldundia eta Udala	63.115,00	14,24
BIZKAIA Aldundia eta Udala	65.000,00	14,67
GIPUZKOA Aldundia eta Udala	77.115,00	17,40
BBK	19.966,06	4,51

Sailak	Gastuak	%
Materialak	13.549,53	3,68
Langileak	229.069,43	62,27
Bidaiek eta egonaldiak	14.452,34	3,93
Kontratazioak	99.184,16	26,96
Funtzionamendua	11.632,12	3,16

